



## ELKARRI LAGUNDUZ

### Jarduera honekin, zera lortu nahi dugu

Sortzen zaizkigun arazoan irtenbideak denen artean bilatzea.

### Iraupena

Jarduera hau saio bakar batean egiteko dago pentsatuta.

### Beharko dugun materiala

Zuhaitzaren irudia (eranskina).

Zuhaitzaren txantiloia (eranskina).

Koloretako margoak (orlegia eta marroia).

### Aurretiatzko oharrak

Jarri neska-mutilak lau taldetan, eta zuhaitzaren piezak eta margoak honela banatu:

- |                                      |                                      |
|--------------------------------------|--------------------------------------|
| 1. taldea: 1. pieza – Kolore marroia | 3. taldea: 3. pieza - Kolore marroia |
| 2. taldea: 2. pieza – Kolore orlegia | 4. taldea: 4. pieza - Kolore orlegia |

Lehen fase honetan, taldeko kide bakoitzak puzzleko pieza bera eta kolore bereko margoa izango du. Helburua da ezin izatea puzzlea beren kabuz osatu eta margotu.

Hausnarketa egin eta ideia hauek azpimarratu:

- Arazoen konponbideak bilatzeko, zein garrantzitsua den elkarren artean komunikatzea.
- Zein aberasgarria den beste pertsonekin eta gure iritzi berekoak ez direnekin komunikatzea.
- Denok behar izaten dugu besteen laguntza.

### 1. fasea: Lagunduko al diogu elkarri?

Jarri neska-mutilak lau taldetan. Talde bakoitzari zuhaitzaren piezak eman, arestian adierazitako moduan. Zuhaitzaren irudia erakutsi, eta esan zuhaitzaren puzzlea osatzen saiatzeko.

Denbora bat eman ostean, gogoeta egin, besteak beste galdera hauek eginez:

- Osatu al duzue puzzlea? Zergatik ez?
- Zer egin dezakezue arazoa konpontzeko eta talde bakoitzak bere puzzlea osatu ahal izateko?

Utzi neska-mutilei konponbideak proposatzen, eta, behar izanez gero, lagundu konponbideak bilatzen: animatu taldeak elkarri galderak egitera, ikus ditzatela batzuen eta besteen irudiak, truka ditzatela piezak, eta abar.

Konponbiderik aurkitzen badute, osa dezatela denen artean zuhaitzaren puzzlea.

### Bukatzeko, hausnar dezagun

Bigarren gogoetaldi honetan, besteak beste galdera hauek egin:

- Oraingoan bai, osatu duzue puzzlea. Zergatik?
- Zer egin behar izan duzue puzzlea osatu ahal izateko?

Bukatzeko, ikasle bakoitzak bere pieza margotuko du, eta denen artean zuhaitza osatuko dute; horrela, bete egingo dute helburua.

**Gogoan izan benetako superheroiek badakitela lana taldean egiten eta taldearen ona dutela beti helburu.**